



MATERIAL BIODEGRADAGARRIEKIN LANEAN

Tolosako Cartonajes Limousin lantegiak ia 100 daramatza kartoi izurtua manipulatzeko eta erabiltzen >7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2008-09-11

VIURTEA 1.505.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Eskuinean, Ezeiza Etxeko Jon Ander Torre, gazta lortu zuen unean. Ezkerrean, une horretan lehiaketaren irabazlea zela uste zena, Santi Etxezarreta. A. APALATEGI

ORDIZIAKO LEHIAKETAKO GAZTARIK ONENA TOLOSARA

GIZARTEA Atzo eginiko enkantean Ezeiza Etxeak eraman zuen gazta garailea, 6.700 euro ordainduta; azoka berezian egin ziren beste lehiaketatan eskualdeko irabazle ugari izan ziren 5

Lumagorri eta Udazkeneko festa eta Erraldoien III. Bilkura izango dira etzi

TOLOSA Egun osoan zehar askotariko ekitaldiez gozatu ahalko da 2-3

Eider Imazek deklaratu du EHAKren auzian, eta epaiaren zain geratu da

IBARRA Hilaren 22rako espero dute emango dutela sententzien epaia 6

Zizurkilgo Teddy Martinez izan da XV. Elbarrena Trofeoaren irabazlea

KIROLA Danena Halterofilia taldeko pultsulariak saio bikaina egin zuen 4

txokoa
h

diskofestarako
2 sarrera pare zozketan
deitu eta eskuratu



Larunbata • irailak 13
22:30etatik 05:00 arte
Tolosako Beotibarren



HITZAREN harpidedunentzat abantailak

Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: 943 65 56 95



Aurkezpenan, Mikel Zubiria, Jose Miguel Gomez, Mari Jose Murua, Unai Agirre eta Ramon Irazu. NOTICIAS DE GUIPUZCOA

Lumagorri eta Udazkeneko festa ospatuko dira etzi

Gizartea » Labeldun oilaskoarekin lotutako ekintza ugari izango dira larunbat goizean; baita Alde Zaharreko jaia ere.

ERREDAKZIOA

Urtero, Lumagorri enpresako ekoizleek eta langileek festa bat antolatzen dute beraien produktua eta egitasmoa ezagutzera emateko asmoz. Oraingo honetan, jaialdia Tolosan egingo da. Gainera, aurten Lumagorri 15 urte betetzen ditu.

Etzi, goizeko lehen orduetatik Tolosako Triangulo plazan eta Plaza Berrian, burduntziak, parrilak, ikatza... ikusi ahal izango dira. Izan ere, egur ikatzez erretako baserriko oilaskoaren 2.015 pintxo banatuko dituzte bertaratzen diren guztien artean. Honetarako, 200 oilasko erreko dituzte burduntzian.

Ekitaldien baitan, 11:00etan, Peio Garcia Amiano Gastronomoa, Eusko Labela duen Baserriko Oilaskoaren Laguna izendatuko dute. Ondoren, Ohorezko Makila emango diote Jose M. Gorrotxategiri. Ezpeleta ostalaritza elkarteak tabernek festarekin bat eginaz, Luma Gorri pintxoak prestatuko dituzte. Honez gain, ohiko bezeroentzako bazkariak sukaldatuko dituzte, eta gonbidatuak tabernen kanpoaldeetan bilduko dira bazkaltzeko. Jateko Luma Gorri oilaskoaz egindako paella izango dute.

Txikientzako txoko berezia

Larunbat goizeko egitarauaren baitan, etxeko txikientzako gune berezi bat atonduko dute Plaza Berrian. Bertan, 11:00etatik aurrera, Txita Txiki Txokoa izeneko umeentzako tailerra izango da. Txoko honetan haurrentzako jolasak eta opariak izango dira eta

baita Luma Gorri txitak ikusteko aukera ere. Baina umetxoentzat ez ezik, gurasoentzat ere ezustekoak izango dira.

Udazkeneko festa

Luma Gorri izeneko festa honez gain, Udazkeneko jaia ere ospatuko da Tolosako Alde Zaharrean. Iazko arrera ona ikusita aurten bigarren aldiz antolatu dute jaia. Egun guztian zehar hainbat ekitaldi izango dira bertan.

Hasteko, 11:00etan inguruko kaleetatik barrena entzierroa egingo da. Ondoren, 12:30ak aldera, Erraldoien Billkura dela eta, hauen eta buruhandien kalejira izango da. 13:30ean, Alde Zaharreko Merkatarionaren saria banatuko dute udaletxeko batzar aretoan. Antolatzaileek agertu bezala, edonor hurbil daiteke bertara, sari banaketa ikustera. Ondoren, gainera, lurcha izango da. 14:30ean, lehen aipatu bezala, Ezpeleta elkarteak tabernekin antolatuta, bakoitzak bere egoitzaren aurrealdean bazkari herrikoia eskainiko du. Izen-ematea tabernan bertan egin beharko da.

Arratsaldean, Santa Maria kaleatik aterako dira konpartsak eta Zerkaustitik barrena, Korreo kale-

tik eta Leitzakotik igarota, Plaza Berrira bideeratuko dira. Hemen, 18:00ak aldera, denak bildu eta emanaldi berezi bat eskainiko dute. Ordu bat beranduago Gorriti plazan bilduko dituzte konpartsa guztiak.

Luma Gorri oilaskoa

Luma Gorri da Eusko Label kalitatezko zigilua duen oilasko bakarra. Oilasko hau laurogeita bat egun arte belardian aske hazten da, hazkuntza fase osoan jarraipen zehatza izanik.

Artoan oinarritutako elikadura naturala jasotzen dute. Erantsitako koipe eta kolorante artifizialik gabe. Bestalde, hazkuntza tradizionala bultzatuz, belardiko askatasunean bizi dira. Honek nabarmentzen du Luma Gorri oilaskoaren berezko zaporea. «Eta honetan, okela osasuntsua, tinkoa, goxoa eta oso berezia lortzen da», diote Luma Gorrikoek. Oilasko ekoizle elkarte honen helburua da, kontsumitzaileen oroimenean ospe handiko okel gisa dagoen aintzinako baserriko oilasko hori berreskuratzea.

Lumagorri elkarteak Euskal Autonomia Erkidegoko 50 ekoizlekin osatzen dute.



Makina mikrotuneladora urretatik atera zeneko unea. HITZA

Araba Etorbidea eta Oria ibaia arteko tutuak sartu dituzte

Azpiegiturak » Jendearen ikusmina piztu zuen herenegun kolektorea ipintzen ari den makinak, ibaitik atera baitzuten.

ERREDAKZIOA

Oria Erdiaren saneamendu-obren baitan, Tolosan kolektore bat erakitzeke burutzen ari diren lanek aurrerapauso «garrantzitsua» izan dute. Izan ere, Araba etorbidea eta ibaia artean, Eroski supermerkatuaren parean, lur azpitik 6-7 metro inguruko sakontasunean tutueria sartzeko egiten ari ziren lanak amaitu dira.

Tutueria sartzeko erabiltzen ari den makina mikrotuneladora herenegun irten zen gainazalera, Eroskiren parean. Tolosar askok ibai ertzetik jarraitu zuten hau. Ikusmira handia sortu zuen egitekoak irauan zuen bitartean eta han bildutakoek lanen ikusgarritasuna azpimarratu zuten.

Ura enpresako enanetan «ekintza konplexua izan da hau eta tutueria sartzeko mikrotuneladora bat erabili da». Makina Araba etorbidean sartu da lurrazpira eta ibaira iritsi arte lurrazpitik egin du bidea. Mikrotuneradorak bere parean aurkitzen duen lurrean zuloa irekitzen du bere buruari esker eta aurrera egin ahala, 1.200 milime-


troko diametroa duen tutua sartzten joan da. Aurrerago, tutu honen Benta Haunditik datorren kolektore zatiarekin bat egingo du.

Araba Etorbidea eta ibaia artean gaizatu diren lanen ostean, saneamendu obraren fase berrie ekingo zaie. Aipatutako zatia San Frantzisko eta Pablo Gorosabel kaleekin uztartuko da, eta azken honetatik, berriz ere ibaira aterako da tutua. Modu honetan, Tolosako hiriguneko hondakin-ur guztiak hartuko dituen kolektore zati osatutako dute. Kolektore zati hau aldeztu aurretik Sailak Benta Haundiraino eraiki zuen kolektorearekin lotuko da eta handik Legorreta, Ikaztegieta eta Alegiako urak jasoiko dituen beste muturrean, Tolosako kolektorea Foru Aldundiak Adunan eraikiko duen araztegiarekin lotuko duen kolektore zati berri batekin lotuko da.

Tolosan eraikitzen ari den kolektoreak hirigune osoa zeharkatuko du bizkarrezur baten modura eta aldi berean, kolektoreari iritsiko diren adarrak ere eraikitzen ari dira, etorkizunean, hiriguneko hondakin-urez gain, industriaguneetako nahiz Ibarra urak ere jaso ditzen. Bestalde, zenbait puntu estrategikotan gainezkabideak eraikitzen ari dira, eurrite handiak izatekotan uholde-arriskua murrizteko. Esate baterako, Berazubi inguruan eraikitzen ari direna.



Irudian, Alde Zaharra Dendak eta Ezpeleta elkarteetako lehendakariak. HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HIRIA ERRALDOIEN ESKU

Kultura » Donostiako, Azpeitiako, Leitzako eta Tolosako konpartsak ariko dira etzi, egun osoan, herriko kaleetan zehar.

INIGO TERRADILLOS

Erraldoien ikuskizun bereziaz gozatzeko aukera izango da etzi Tolosako kaleetan zehar, Tolosako Ekinbide Etxeak (TEE-CIT) antolatuta, Erraldoien 3. Bilkura izango baita.

Bilkuran Gipuzkoako hiru konpartsak eta Nafarroako batek batek hartuko dute parte. Gipuzkoakoiei dagokionez, 3 bailara desberdinetako erraldoiak izango dira: Donostiako Irrintzi konpartsa, Azpeitiako konpartsa eta Tolosako konpartsa. Nafarroakoak da gonbidatutako azken konpartsa, Leitzako konpartsa, hain zuzen ere. Konpartsak askotarikoak dira, kultura desberdinetakoak, euskal mitologian oinarriturikoak, edota, herri baten pertsonaia historikoak.

Etzi eguerdi aldera ekingo diote lau konpartsek kalejirari. Alde Zaharreko kaleetan erakustaldia egin ostean, bazkaltzeko txanda izango da, eta arratsaldean berriro ere hartuko dute erraldoiek herria. Kalejira egingo dute Santa Maria Plazatik abiatuta, eta hainbat kaleetatik igaro ondoren, Plaza Berrian bilduko dira denak jendaurrean emanaldia egiteko. Azkenik, iluntze aldera, Gorriti plazan emango diote amaiera ikuskizunari.



2006an, Tolosako 750. urteurrenaren ospakizunen baitan, Lizarra, Lakuntza, Iruñea, Tafalla eta Tolosako erraldoien egin zuten. J. ASTIBIA

» EGITARAUA

- **12:30.** Konpartsen kalejira hasiko da, eta Alde Zaharreko kaleetan zehar emanaldi desberdinak eskainiko dituzte.
- **14:30.** Konpartsen bazkaria Berdura Plazan.
- **17:30.** Konpartsen irteera Santa Maria plazatik. Desfilea Solana,

- Korreo, Leitza kaletatik eta Plaza Berrian zehar.
- **18:00.** Konpartsen kontzentrazioa Plaza Berrian, konpartsa bakoitzaren aurkezpena eta emanaldia.
- **19:00.** Konpartsak Gorriti Plazan jasoko dituzte.

» KONPARTSA PARTE-HARTZAILEAK



■ **Azpeitiako konpartsa.** Lau erraldoiek osatzen dute: Mairua, txinatarra, emakume beltza eta emakume zuria. Lau erraldoiek arraza eta kultura desberdinetako aniztasuna irudikatzen dute. Azpeitiako Udalak erosi zizkion Valentziako konpainia bati 1972an.



■ **Donostiako Irrintzi konpartsa.** Lau erraldoiez osatua: Ilargi eta Eguzki, bi emakumeren bidez irudikatua, euskal mitologiak aurkezten dituen bezala. Eguzki kolore biziz, eta Ilargi kolore ilunez. Erdi Aroko iturrietan oinarriturik daude. Bestalde, gizonak ardien zainketan gure mendiak zeharkatzen zituzten artzainak irudikatzen ditu, eta emakumeak, esnea banatzen zuten emakumeak.



■ **Tolosako konpartsa.** 1994ko maiatzean estreinatua, eta 4 erraldoi eta 7 buruhandiz osatua. Irudien sortzailea Iñaki Moyua da. 2004an beste 2 erraldoi erantsi ziren. Domenjon Gonzalez de Andia, Catalina de Tapia anderea, Bordondantzaria, neskatila eta Pello eta Isabelita erraldoiek Tolosako pertsonaiak irudikatzen dituzte, eta 7 buruhandiek Tolosako Inauteriak eta euskal mitologia.



■ **Leitzako konpartsa.** Bi erraldoi handi eta 4 erraldoi txiki osatzen du. Bi erraldoi handiak 1998an eraikiak izan ziren, eta Lizarra eta Garazi izena dute. Erdiko Lauak 11-12 urte bitarteko haurrek egin zituzten 2007ko udan eta beraiek dira dantzazten dituztenak. Gaitero talde batek ere osatzen du konpartsa.

Kiroljokoa Apustu-etxearen inaugurazioa egingo dute gaur arratsaldean

Kirola » Errementari kaleko 2an dagoen lokala 19:00etan zabalduko dute; lehen apustuak egin ahaliko dira.

ERREDAKZIOA

Tolosako Kiroljokoa Apustu-etxea inauguratuko da gaur, Errementari kaleko 2an. Lokala 19:00etan irekiko dute eta bertan kirol zaleak beren lehen apustuak egin ahal izango dituzte zenbait lehiatan. Tolosako Apustu-etxea, Kiroljokoa Eibar, Irun eta Gasteizen jadanik ireki dituenak bezala, «kirola bizitzeko» gunea izango da. Makinetan eta arretarako mostradorean apustu egiteaz gain, kirol lehiak jarraitu, eta informazio monitorrean apustu ezberdinak ezagutu ahaliko dira.

TAKeko neskek etzi izango dute sailkapen proba Kontxako uretan

Kirola » 18:00etan lehiatuko dira; lehenengo lau postuetan amaitu behar dute igandeko finalean lehiatzeko.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Arraun Klubeko (TAK) neskek sailkapen proba izango dute etzi, 18:00etan Donostiako uretan. Lau traineru onenen artean sailkatzea izango da beraien helburua, horrela, igandeko finalean lehiatu ahal izateko.

TAKekoez gainera, Hondarribia, Zumaia-Getaria, Bizkaiaiko Arkote, Kantabriako Astillero, Galiziaiko selekzioa eta Kataluniako bi traineru ariko dira. Azken Gipuzkoako Txapelketan tolosarrak hirugarren geratu ziren 30. segundorako, eta Euskadiko Txapelketan ere postu horretan amaitu zuten.



TAKekoak entrenatzen Orion. HITZA

Larra eta Koteliren zuzendaritzapean aritu dira gogor entrenatzen tolosarrak abuztuan zehar, eta lehen lau postuetan sailkatzea espero dute; hori bai, Tolosaldeko zaleak gonbidatu nahi dituzte bertaratera eta animoak ematera.

Eneritz Garmendia (patroia), Itziar Saizar, Amaia Doyague, Maialen Azaldeggi, Ainhoa Lopetegui, Olatz Ortíz, Izaskun Peñagarikano, Edurne Mendia, Mirian Elorza, Maitane Garmendia, Joa-

na Alijostes, Naroa Urkola, Amaia Artola, Naiara Gorostiaga, Izaro Zubiria, Josune Lizaso, Itziar Olsagasti eta Aitziber Lizarralde osatzen dute talde.

TAKetik zorte ona opa nahi diego nesken taldeari etziko saiorako. Horretaz gain, denboraldi honetan tolosar arraunlariek eginiko lana nabarmendu nahi izan dute: Zumaiaiko Telmo Deum taldearekin aritu den Jon Ander Agirre eta Orio Brekin mailaz igotzea lortu eta Santoñako bandera eskuratu duen Iñigo Jauregi.

Billabonatarak San Pedron

Bestalde, 12:00etatik aurrera gizonen ohiko Kontxako Bandera jokatu dute igandean. Bertan ariko dira lehian Pasai San Pedrorekin Ander Ansa, Garikoitz Lopetegui, Joseba Larrarte, Eneko Larrarte eta Andoni Leunda billabonatarak.

'La duquesa de Langeais' filma gaur ikusgai Leidorren, Zine Forumean

ERREDAKZIOA

La duquesa de Langeais filma izango da gaur ikusgai Zine Forumean, 19:15ean eta 21:45ean, Leidor aretoan. Bestalde, *Escondidos en brujas* emango dute bihar, 22:30ean, etzi 19:30ean, igandean 22:00etan eta astelehenean (ikusnearen eguna) 20:30ean. *Las crónicas de Narria 2* emango dute etzi eta igandean 17:00etan, eta *La Momia 3* filma igandean, 19:30ean

ERROMERIA LEGAZPIN!
Irailaren 14an, igandea, Lakiolan, 12:00etatik aurrera.
Koadrilren arteko apustu lotza, bertsolariak, jokoak eta erromeria bikaina Elustondo anai-arrebeekin!
Autobusa, bazkaria eta taberna.
Euskarazko Zingizango webgunearen alde.
Animu zaitez!
Euria eginez gero, Urbeltz pilotalekuan egingo da.

Teddy Martinez irabazle, XV. Elbarrena Trofeoan

Zizurkil » Danenako pultsulariak saio bikaina egin zuen; taldekidea den Ekaitz Kortajarena bigarren sailkatua izan zen.



Pasa den larunbateko saioaren une bat. E. EZEIZA

ERREDAKZIOA

Pasa den larunbatean, Danena Halterofilia taldeko pultsularia den Teddy Martinezek Halterofiliako XV. Elbarrena Trofeoa irabazi zuen, Zizurkilgo Joxe Arregi plazan. Bigarren postuan, berriz, talde berekoa den Ekaitz Kortajarena gelditu zen; eta podioko hirugarren postua Bilboko Kepa Ortegarrentzat izan zen.

Guztira bederatzita pultsulari aritu ziren nor baino nor. Ikusle asko hurbildu zen emanaldiaz gozatzeri. Hori dela eta, antolatzaileei guztiei «eskerrik beroenak» eman nahi dizkiete, «baita parte hartu zuten talde eta pultsulari guztiei ere».

Saillkapenean, hauek izan ziren laugarren eta bederatzigarren postuen artean geratu ziren pult-

tsulariak, hurrenez hurren: laugarren, Danenako Igor Saisian; bosgarren, Basauriko Paco Cruz; seigarren, Irungo Jon Aranburu; zazpigarren, Galdakaoko Javier Zelai; zortzigarren, Irungo Javier Aranburu eta bederatzigarren, Basauriko Axier Bravo.

Oroigarriak pultsularientzat

Bestalde, Danena taldeko arduradunek Nazioarteko Txapelkete-

tan izandako taldeko pultsulariei plaka bana banatu zieten, «Zizurkilgo eta Danena taldearen izenak zabalteagatik» eta lorpen garrantzitsuak izateagatik: Igor Sasiain, Europako 17 azpikoan Txapelketan (2007-2008); Ekaitz Kortajarena, Albania Trofeoa (2006) eta Iberoamerikarrak (2006); Teddy Martinez, CEE/EEB (2007), Junior Mundiala (2007), Europako promozioa CUP (2007).

'Methology' helduentzako antzerkia ikusgai udaletxeko aretoan, bihar

Anoeta » Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, 22:00etatik aurrera izango da emanaldia.

ERREDAKZIOA

Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, Igor de Quadraren *Methology* helduentzako antzerkia izango da ikusgai, 22:00etatik aurrera, Anoetako udaletxeko aretoan.

Irudi, objektu eta mimoan oinarritutako antzerki lana da. *Methology* bereburua ezagutu nahian aktore baten bidaia absurdoa azaltzen du aktoreak, *Nor naiz* galdera korapilatsu hori, errealitatea eta ametsaren tartean, umorez eta jolasean azalduz. Igor de Quadrak Londres-en Co. Theatre de L'Ange Fou konpainian lan egin du, bai Ingalaterra baita Europan zehar ere. 2004. urtean Aude Tournay-rekin Falsa Imago sortu eta Pinokkio Prize 04 saria irabazi zuten Belgika-n (Damaged by Miracles).

Bizikleta martxa antolatu dute KMK-08 egitasmoaren baitan

Kilometroak » Etzi izango da eta Irurako, Anoetako, Tolosako eta Ibarrako ikastolako ikasleek hartuko dute parte bertan.

ERREDAKZIOA

Urriaren 5a gero eta gertuago dago. Irurarrentzat eta euskaltzale guztientzat data berezia benetan, kilometroen jaialdia Iruran bertan izango baita. Honen atzean urte osoan zehar lanean aritu den taldeak ekitaldi berria antolatu du asteburu honetarako, KMK-08 egitasmoaren barruan.

Hain zuzen ere, etzi, larunbata-

rekin, bizikleta martxa egingo dute, 16:00etatik aurrera. Ibilaldi honetan Anoetako Herri ikastolako, Irurako Ikastolako, Ibarrako Uzturpe ikastolako eta Tolosako Laskorain Ikastolako ikasle eta gurasoek parte hartuko dute; Lehen Hezkuntzako 3. mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailara arteko ikasleek hartuko dute parte, hain zuzen.

Ibilbidearen nondik norakoak

Herri bakoitzeko txirrindulari gazteek 16:00etan ekingo diete euren ibilbideei, izan ere, hiru taldeetan irtingo dira, ondoren guztiak elkartzeko.

Hala, anoetarrak eta irurarrak

16:00etan Anoetako plazan elkartuko dira. Handik Belaterajaongo dira eta bertan Ibarratik eta Tolosatik etortzen direnekin elkartuko dira. Irurara joango dira.

Tolosakoak, berriz, 16:00etan Laskorain Ikastolan (Usabal) elkartuko dira. Iurre, Berazubi eta Nafarroa etorbidea igaro ondoren Santa Klaran ibarretan elkartuko dira, hauekin Bialeatik Belaterajaongo eta anoetar eta irurarrak elkartuko ondoren Irurara joateko.

Azkenik, Ibarrakoak 16:15ean Tolosan, Santa Klara parean, Tolosarrekin elkartuko dira, hauekin Bialeatik barrena Belaterajaongo eta hemen Anoeta eta Irurarrak elkartuko ondoren Irurara joateko.

Ondoren, txokolatada

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, Udaltzaingoa, Gurutze Gorria eta Oriako Txirrindulari Eskolako lagunak ibilbide guztian zehar izango dira. Irurara heltzen direnean, txokolatada izango da guztientzat eta 18:00etan bakoitza bere herrira itzuliko da. 18:30erako, Tolosako Triangulora itzuliko dira guztiak.

Dena den, neska-mutilek guraso edo helduren batekin lagundurik joan behar dutela ohartarazi dute.

Izen-ematea, bihar arte

Antolaketa lanak errazte alderia eta guztia prest egon ahal izateko, parte hartu nahi duten neska-mutil kopurua ezagutu nahi dute arduradunek. Hau dela eta, parte-hartze orria bete eta ikastolara eramatea eskatu dute. Horretarako azken eguna bihar izango da.

Laburrak

Harizko txotxongiloak egiteko ikastaroa

ADUNA » Asvinenea Arte eszenikoen Laborategiak harizko txotxongiloak egiteko eta erabiltzeko ikastaroa antolatu du, Carlos Llopezek eskainia. Irailko hirugarren eta laugarren asteburuan landuko dute eta, guztira, 38 orduko ikastaroa izango da. Interesatek informazio gehiago eskura dezakete 630 214 483 telefono zenbakian edo asvinenea@gmail.com helbidetan.

Nesken Pilota Eskolari buruzko bilera, gaur

IRURA » Nesken Pilota Eskolari buruzko bilera egingo dute gaur 19:00etatik aurrera, Irurako Gaztelekuan. Arduradunek interesatu guztiei azaltzeko deia zabaldu diete.

La Jara elkarteak Kultur Astea, ekitaldi ugari

TOLOSA » La Jara elkarteak Extremadurako Kultur Astea ospatzen ari dira. Gaurko egitarauaren baitan, 18:00etan *Zer dakizu Extremaduraz?* lehiaketa antolatu dute; eta 19:30etik aurrera, berriz, Extremadurako plater erregionalen lehiaketa (migas, patata tortilla, tomate zopa, caldereta, pisto, gazpacho, tomate entsalada eta piper entsalada).

Rosa Maria Gullonen margoak ikusgai Lanbroan

TOLOSA » Rosa Maria Gullonen margoak ikusgai daude egun hauetan Lanbroa tabernan. Loreak ikus daitezke, oleo eta espatula metodoarekin egindako artelanean.

Oargi elkarteak arroilen jaitziera antolatu du

TOLOSA » Oargi mendi elkarteak asteburu honetarako arroilen jaitziera antolatu du. Horretarako Bielsara joango dira eta bertan Pinetako aterpetxean egingo dute. Irteeran parte hartzeko interesa dutenek informazioa eskura dezakete 637 830380 telefono zenbakian. Izen-ematea ere bertan egin ahal izango dute.



bidali opor hauetakoa argazkiak!



Sari nagusia

2. saria

3. saria



Amorotoko Altuena landetxean, bi pertsonentzako bi gauerako egonaldia.

Tolosako **Beti Alai** jatetxean, bi pertsonentzako bazkari edo afaria.

Ibarrako **Azoka** dendak eskaintako saski berezia.

ARGAZKIAK NORA BIDALI

• **P. elektronikoa:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
• **Postaz:** Argazki lehiaketa, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, Araba etorbidea 5 behe, atzea 20400 TOLOSA
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

Parte hartzaile eta boto emileen artean HITZAko materiala zozketatuko dugu!

Ordiziako oilo eta barazki lehiaketetan Tolosaldeko hainbat izan dira sarituak

Ekonomia » Tolosako Ezeiza Etxeak Ordiziako Ardi Latxaren Esnez egindako gazta lehiaketako alea erosi du 6.700 euroan.

NEREA URBIZU

Euskal Jaietako Azoka Berezia izan zen atzo Ordizian, eta bertan, Ardi Latxaren Esnez Egindako Gazta Lehiaketa egiteaz gain, oilo, barazki, fruta eta perretxiko lehiaketa ere izaten dira. Tolosaldeko baserritar askok jaso zuten saria atzo Ordizian, Albizturren, Ibarrran, Baliarrainen eta Anoetan banatuta. Baliarraingo Maria Jesus Mujikak eta Edurne Jauregik, eta Ibarrako Montes mintegiak barazki-fruita lehiaketatan aipamen bereziak jaso dituzte. Barazki lehiaketan, berriz, Dani Oiarzabalak bigarren saria jaso du.

Askok saria errepikatu dute, beti kalitatezko produktuak eramaten baitituzte Ordiziara. Adibidez, Albizturko Maria Luisa Zuriarrainek eta Xabier Goikoetxeak, bere semeak. Aurten oilo-gorri eta oilo-zilarrik dotoreenak izan dituzte eta lehen saria jaso dute batean, zein bestean. «Espero genuen alde batetik, baina bestetik ez: aurten kruzea egin behar genuen arraza hobetzeko eta lumak ez dira batez ere zilar-oiloetan hain politak atera». 20 urtetik gora daramatzate sariak irabazten: «Aurten ez da kompetentziarik egon, oso jende gutxi aurkeztu da eta zegoena kalitate gutxiokoa zen, nigandik hasi-ta», dio Maria Luisa Zuriarrainek.

Horrenbeste urte sariak jasotzearen sekretu berezirik ez omen dago: «Etxean polit jarri behar duzu oiloen lekua, ondo elikatu eta mimatu. Pentsu naturala ematen diogu, ez biologikoa: soja, garia... Eta aspia lehorra izan behar da beti».

Gazta-erdia 6.700 euroan

Irabazlearen gazta erdiarengatik 6.700 euro ordaindu zuten (iaz baino 300 euro gehiago) erosleek, Tolosako Ezeiza Etxeak, hain zuzen. Epaimahaiaren akats baten ondorioz Santi Etxezarreta izendatu zuten lehen momentuan garaile, baina Ricardo Remiro eulartearra izan zen.

Dastaketa luzea egin ondoren, eta azken fasea jokatzeko gaztak aukeratu, epaimahaiak Santi Etxezarreta olaberritarra jo zuen gazta lehiaketan irabazle; baina ez zen bere gazta epaileek saridun jo zuten, Ricardo Remirorena baizik. Zuzenketak egin ondoren, hala baieztatu zuten geroago antolatzaileek.

Antolatzaileek berriro egin behar izan zuten sari-ematea, agintariak bilduz.



Jendetza bildu zen atzo Ordiziako azoka berezian. Irudian, Maria Jesus Mujika baliarraindarra. A. APALATEGI / GOIERRIKO HITZA

» SAILKAPENAK

EUSKO OILOEN 27. LEHIAKETA

- **Oilo gorriak.** Xabier Goikoetxea (Olateaga Goikoa, Albiztur).
- **Oilo zilarrak.** Maria Luisa Zuriarrain (Olateaga Goikoa, Albiztur).
- **Oilo marradunak.** Pablo Izagirre (Deskarga, Urretxu).

BARAZKI LEHIAKETA

- **Lehen saria.** Jose Manuel Zabalategi (Olatzo, Martutene).

- **Bigarren saria.** Dani Oiarzabal (Anoeta).
- **Hirugarren saria.** Xabier Aranguren (Leunda Berri, Beizama).

AIPAMEN BEREZIAK

- **Barazki-fruita lehiaketatan.**
- Maria Jesus Mujika (Gorostorzu, Baliarrain).
- Anttoni Murgiondo (Bekoetxe, Gabiria).

- Edurne Jauregi (Irabiazpi, Baliarrain).
- Montes Mintegia (Montes, Ibarra).

FRUTA LEHIAKETA

- **Lehen saria.** Maddi Iradi (Hernani).
- **Bigarren saria.** Ramon Aseginolaza (Kalbario, Idiazabal).
- **Hirugarren saria.** Maria Etxezarreta (Agerre Berri, Gabiria).

«Gazta irabazlearen sortako ale gehiago erosiko ditugu»

JON ANDER TORREA » Ezeiza Etxeko zuzendaria

Tolosa » Ezeiza Etxeko zuzendaria Ordiziara gazta irabazlea erosteko asmoz joan zen atzo, eta 6.700 euroan lortu zuen.

N. URBIZU

Gazta erosteko asmoarekin joan zen Jon Ander Torrea Ordiziara; «Ez genuen espero Ezeiza Etxeko kook prentsaren aldetik halako interesa», dio. Gazta erabiltzen duten produktuetan dastatu ahal izango da aurtengo Ordiziako Ardi-Gazta Lehiaketan lehen saria jaso duen gazta.

Gozotegi batek erosi du gazta. Ez al da, gutxienez, deigarria?

Beti egin dugu lan Idiazabal gaztarekin, gazta tarta egiteko eta kanutillo-gaztak egiteko. Idiazabal gazta oso erabilgarria eta zabalda da sukaldetan erabiltzeko, baita sukaldetako gozoan ere. Beti berritzen joan beharra da ere, eta nolabaiteko ospe-edo, ematen du ere.

Nola joan da enkantea?

Egia esaten badizut, berandu agertu naiz eta lehen fasea ez dut ez ikusi ezta entzun ere. 5.000 euroan zegoen enkantea iritsi naizenean, eta iazko preziora iristen zela ikustean 6.500 euro eskaini dut (bage-nekien hortik ibiliko zela). Zertxobait gehiago ordaintzeko prest nengoan, baina azkenean 6.700 ordaindu dut. Nolabait esatearren, erraza izan da. Ordiziara gazta erosteko asmoarekin joan naiz.

Gazta erdi batekin postre askorik ez...

Remiroekin hitz egin behar dut eta ziurrenik gazta erdi honen *anaiak* erosiko ditugu. Zaporebera ez du izango, baina bai oso-oso antzekoa.

Badakigu zenbat ordaindu du-zuen, baina zein pixu daukan?

Ez dut pixatu, baina kilo erdi izango du. Zin dagizut ez dudala gazta horrekin meriendatzeko otarrekorik egingo!

Zer suposatuko du honek zuentzat?

Bada, ez dakit... Abenturaxto bat da, nolabaiteko festa-giroa sortu

da honen inguruan. Ez dakiguzentubateko publizitatea emango dion honek Ezeizari, ez dugu pentsatu horretan.

Nola jakingo du erosleak Remiroren gaztarekin egindako produktua erosten ari dela?

Zer edo zer eramango du, seinale edo markaren bat. Erosten duenak ona den zerbait erosiko du, seguru. Gainera, lehen esan bezala, gazta honen sortako ale gehiago erosiko ditugu.

Iragarki laburrak

LANA

- **Irakaslea.** Lazkaoko ingeleseko akademiarako irakaslea behar dugu. Bidali curriculum vitae hizkuntzaeskola@gmail.com-era.
- **Irakaslea.** Gitarra klaseak bakar-ka edo taldean. 630 925 997.
- **Zaintzailea.** Emakume bat behar da etxeko lanak egin eta 2 haur zaintzeko. 686 11 89 20.

Hilaren 28an Zaldi Raid lasterketan parte hartzeko izen-ematea

Bedaio » Izena emateko epea aurki irekiko dute; zaldi lasterketa honen funtsa heziketa dela azaldu dute.

ERREDAKZIOA

Hilaren 28an Zaldi Raid lasterketa egingo dute Bedaion. Honen aurretik, joan den Kultur Asteburuarren baitan, hain zuzen, zaldi lasterketa honi buruzko informazio erabilgarria eman zuten. Lasterketa horren funtsa heziketa da, eta gainera, «Bedaio zaldiz ibiltzeko paraje ederra eta aproposa da», diote. «Zaldia baduzu, gazte edo heldu bazara eta natura maite baduzu, edozein etor daiteke Bedaioara», esan dute antolatzaileek.

Informazio gehiago nahi izanez gero, bedaioerrota@hotmail.com helbidera idatz daiteke. Izena emateko epea ere aurki zabalduko dute.

Laburrak

Asteartean Kultur Asteari buruzko bilera izango da

AMEZKETA » Datorren asteartean, hilak 16, 20:30ean balioaitzeko gelan bilera bat egingo dute. Bertan jorratuko duten gaia Kultur Astea izango da. Hau antolatzen eta egituratzen hasiko dira bertan. Jendeak bilera honetan parte hartzea nahi dute antolatzaileek, «ahalik eta Kultur Aste aberatsena» izateko.

Igandean Izaskungo Andre Mariaren aldeko meza

IZASKUN » Aspaldidanik irailko bigarren igandean Tolosaldean Izaskungo Andre Mariaren jai ospatu ohi dute. Hori honela, datorren igandean, hilaren 14an, hain zuzen, Izaskungo Santutegian Meza Nagusia izango da 11:00etan. Meza honetan Santa Maria parrokiako koroak eta orkestrak parte hartuko dute.

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza bat hartuko genuke alokairuan Tolosan, Ibarrran, Villabonan edo inguruetan. 635 71 24 44.

SALGAI

■ **Autoa.** Peugeot Partner diesela. Egoera onean. Interesatuak deitu: 649 51 09 41.



Ibarran batzar informatiboa zein elkarretaratzea egin zuten atzo Eider Imaz eta gainontzeko auziperatuei elkartzasuna agertzeko. R. CALVO

Eider Imaz ibartarra epaiaren zain geratu da, atzo deklaratu ostean

Politika » EHAKren auzian 23 euskal herritar auziperatu dituzte; hilaren 22rako izan dezakete epaia.

REBEKA CALVO

Pasa den astelehenean sei lagunek egin moduan, atzokoan beste hamar pertsona agertu ziren Espainiako Auzitegi Goreneko Baltasar Garzon epailearen aurretik, izan ere «EHAKrekin zuten lan hitzarmena dela eta jasotzen zuten dirua ETari laguntza emateko erabiltzen zutela» leporatzen diete.

Atzo epailearen aurrean agertu eta bat Eider Imaz ibartarra izan zen. Auziperatu guztiak, astelehenean egin moduan, ez deklaratzera duten eskubidea aldarrikatu zuten auziperatuen ustez «auzitegi politiko» baten aurrean baitaude. Imazek agertutakoaren

arabera, bere agerpenean «zitazio hauek, herritar garen aldetik, herritarren eskubideak urratzen ditu eta baita herri bat ukatzen ere». Herri honek bizi duen «salbuespen egoera» ere salatu nahi izan zuen Imazek.

Era berean, tentsio une batzuk ere bizi izan ziren atzoko agerpenean, izan ere epaileak auziperatu batek euskaraz egin duen salaketaren itzulpena entzuterakoan bere atxilotzea eskatu zuen Garzonek. Beranduago, hala eta guztiz ere, erabakia bertan behera utzi eta ez zuten inongo atxilotetarik burutu.

Epaia hilaren 22rako

Ez epaileak ez eta fiskaltzak ez zuten auziperatuen kontrako kaute-lazko neurririk hartu, nahiz eta oraindik ere indarrean dagoen 23 auziperatuen kontrako talde armatuarekin kolaboratzearen egoetza. Orain egun gutxi Espai-

niako hainbat komunikabidek esan zutenaren arabera, Auzitegi Goreneko 61. aretoak hilaren 22rako izan dezakete sententzian epaia.

Garzonek, beraz, «talde armatuarekin kolaboratzea» egotzi die guztiak, bost eta hamabi urte bitarteko zigorra izan dezakeena, «beste hainbat delituen artean». Auzitegi epaileak guztira 23 euskal herritar auziperatu ditu, eta horietako batzuk, gainera, kartzelan daude.

Atzoko zitazioei dagokionez, Baltasar Garzonek otsaila partean emandako autoen haririk datoz. Epaileak orduan EHAK alderdiaren jarduna hiru urtez utzi zuen bertan behera eta bere egoitzen itxiera ere agindu zuen.

EHAK eta EAE-ANV

Gogoratu behar da Auzitegi Goreneko 61. aretoak bultzatutako EHAK eta EAE-ANVren ilegali-

zazioaren akusazio publikoak taldeek ETA legitimotzat jotzen dutela eta Batasunari «finantza-laguntza» eman diotela diola.

EHAKren ilegalizazioa bultzatzeko aurkeztutako proben artean Garzonek taldearen legebiltzarreko ordezkariak «bere egituratik kanpoko pertsonak kudeatzen» zutela zioen.

Horiek horrela, atzo hasi ziren Espainiako Auzitegi Gorenean EHAK eta EAE-ANV alderdien inguruko deliberazioak egiten hauek legez kanpo utzi ahal izateko. Bi alderdiek, euren aldetik, datorren astelehenera arteko, hilak 15, epea izango dute euren alegazioak idatziz aurkezteko.

Atzokoan gainera, batzar informatiboak eta elkarretaratzeak egin ziren iluntzean Anoetan, Villabonan, Tolosan eta Ibarra auziperatuei euren elkartzasuna adierazi eta herritarrei auziaren gora beheren berri eman ahal izateko.

Asteleheneetik aurrera izango da ikastaroetan izena emateko aukera

Ibarra » Besteren artean, eskulan, masai, sevillar dantzak eta makillaje ikastaroak antolatuta dituzte.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak urteroko moduan ikasturte honetarako ikastaroak antolatuta ditu. Hauetan izena emateko epea datorren astelehenean hasiko da, hilak 15, eta hilak 29an amaituko da.

Ikasturte honetan hortaz, bederatzik ikastaro antolatuta dituzte eta makillajearena izan ezik gainontzeko guztiak kurtsu osoa irauango dute. Makillajearena urria eta abendua bitartean izango da.

Asteleheneetik ostegunera

Ostegunetan hiru ikastaro izango dira; aretoko dantzak, sevillar dantzak eta makillajea. Lehena 18:00etatik 20:00etara izango da, bigarrena, ondoren, 20:00etatik 22:00era eta azkena 15:30etik 17:30era irauango du. Ikastaroen salneurriak dagokionez 127,89 euro, 127,89 euro eta 60,59 eurotakoak dira, hurrenez hurren.

Astearteetan ehoziaren ikastaroa egongo da, 17:30etik 19:30era, eta baita masajea ere, 18:30etik 20:30era. Kurtsu bakoitzak 127,89 euro balio du. Astearteetan eta ostegunetan egur tailaren eta pinturaren txanda izango da. 159,18 euroko prezioa du ikastaro bakoitzak eta egur tailaren kasuan bi orduz gero daude: 17:00etatik 19:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Pinturan lehenak 15:30etik 17:30era ariko dira eta hasi berriak ondoren, 17:30etik 19:30era. Azken bi tailerrak astelehenean eta asteazkenetan izango dira. Errestaurazio eta eskulan ikastaroak 159,18 eurokoak dira eta lehena 19:00etatik 21:00etara izango da eta eskulanak 17:30etik 19:30era.

Ikastaroetan izena eman nahi duenak Udaleko web orrialdean aurkitu duen matrikula orria bete behar du. Informazio gehiago 943 67 03 99 zenbakian aurki daitezke.

Hilberria

MILA UNANUE ISPIZUA

(Irailaren 9an hil zen)

Urteetan zehar indarra eta maitasuna erakutsi eta eman diguzu, ama.

Beti gure artean izango zaitugu, joan bakean eta mila muxu.

Semea Jon eta Nagore

ZUMAIA
2008ko irailaren 11

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



90eko hamarkadan egindako modernizazioan makinaría eta lan teknika berriak ezarri ziren. HARRIET BELLOSO

Material biodegradagarrien alde lan egiten duen enpresa

Tolosa » Tolosako Cartonajes Limousin enpresa famatuak ia ehun urte daramatza kartoi izurtua erabiltzen eta manipulatzeko.

HARRIET BELLOSO

Multinazionalak nagusi diren gizarte honetan dirudienez ez dago lekurik Cartonajes Limousin bezalako enpresa apalantzat. Tolosako enpresa txiki honek ehun urte bete behar ditu kartoi izurtuarekin lan egiten, eta nahiz eta urte luze hauetan arazo eta liskar ugari izan diren, Gipuzkoan sektore honetako lehena da. Abuztuaren hogeita bost urte bete ditu Langileen Sozietate Anonimo bezala eta ingurumenaren alde egiten ari den lanera eredugarria dela esan beharra dago.

Historia berezia

1912. urtean sortu zenetik enpresa honen ibilbidea ez da erraza izan eta urte hauetan gorabeherak eta arazoak nagusi izan dira. Limousin familiak fabrika ireki zuenean kutxatilen negozioan murgilduta zegoen, baina 1970eko hamarkadan makinarian inbertsioak egiten hasi zirenean kartoi izurturen produkzioan sartu ziren. Merkatu berriera irekitzeko beharra ikusi zuten eta urte horietan kartoiaren merkatua hedatzen ari ziren.

80ko hamarkadan Cartonajes Limousinen urte beltzak hasi ziren. 1983ko krisi ekonomikoak eragin zuzena izan zuen enpresa

honetan eta Limousin familiak negozioa alde batera utzea erabaki zuten. Memento gogorak izan ziren, langileek beldur handia zuten eta mobilizazioak etengabeak izan ziren. Enpresak zor ugari zituen eta jendeak ez zekien zer egin aurrera atera ahal izateko. Orduan, eta azken uneko irtenbide bezala, abuztuaren langileek enpresaren kontrolpea bere gain hartzea erabaki zuten eta horretarako Limousin familiaren akzioak maneiaturiko zituen Langileen Sozietate Anonimo bat (S.A.L.) eratu zuten. Pertsonalaren gehiengoa proiektu arriskutsu honetan sartu zen, baina beste batzuk kanpoaldera joatea erabaki zuten. Une berezi horietan langile gehienak oso gazteak ziren eta egun oraindik hamar pertsonen enpresan jarraitzen dute lanean.

Hala ere, datorren urteetan egoerak zaila izaten jarraitu zuen. Langileen artean liskar ugari egon ziren, hasieran diru kopuru handiak jarri behar izan ziren eta lankide askok ez zuten onartu egoera berri hau. Gainera, 1983ko uholdeek fabrika ere harrapatu zuten eta makinaría asko erabiltzaitz geratu ziren. Honek inbertsio berriak egitea behartu zuen, langileen arteko liskar berriak eraginez. Jendea en-

presaren alde borrokatzeko gogotsu mantendu zen eta apurka-apurka, eta lan handia eginez, Cartonajes Limousin hamarkada hasieran murgilduta zegoen zulo beltzetik ateratzen hasi zen.

Teknologien papera

Teknologien bilakaera enpresaren bilakaerarekin batera joan da. 1974. urtean kartoi izurtzen hasi ziren eta fabrikari makinaría eta lan egiteko teknika berriak agertu ziren. 80ko hamarkadako gertakariak (uholdeak, zorrak, zuzendari-tzan aldaketak...) eta datorren urteetako krisialdiek inbertsio berriak egitea galarazi zuten. Hamarkada berrian ekoizpena handitu egin zen eta egoera guztiz aldatu zen. 1996. urtean pabilioia handitu zen eta teknologia berrietan lehenengo inbertsioak egin ziren, antzinako makinak eta tresnak alde batera utziz. Informatikak garrantzia handia irabazi zuen eta kartoiaren eratze prozesuan kudeaketa programak ezarri ziren.

Egun dagoen kompetentzia batiak eragin zuzena izan du modernizatzeko prozesuan. Merkatuaren lehen postuetan egon nahi bada tendentzia berrietara irekia egon behar da eta urtero inbertsio garrantzitsuak egin behar dira atzean geratu nahi ez bada. Une honetan kartoiaren negozioa multinazional indartsuen esku dago eta Limousin bezalako enpresa txikiak oso zaila dute beraien pro-

duktuak saltzeko. Fabrika apalek eratze prozesu guztia integratuta izaten dute eta hori abantaila garrantzitsu bat izan daiteke, baina enpresa nagusiek papera ere eratu dute eta azkenean atentzio guztia beraiek bereganatzen dute.

Multinazional batek merkatu osoa kontrolpean izan nahi bada azkenean beste enpresa batzuekin fusionatu behar du eta bere ibilbidearen zehar Limousinek tankera honetako proposamen ugari izan ditu. Enpresa independentea izaten jarraitzen du, baina etorkizu-

nean eskaintza interesgarri bat iristen bada hitz egiteko prest azalduko dira.

Etorkizuneko materiala

Limousinek ia ehun urte daramatza kartoi izurtuarekin lan egiten eta oraingo ez dauka material berriekin lan egiten hasteko asmorik. Kartoiak aukera asko eskaintzen ditu, ekologikoa da eta zenbait aditu-entzuz etorkizuneko materiala da. Egun, kartoiak aplikazio asko ditu: kaxak, kutxatilik, zig-zag itxurako kartoi moldeak, janariak edukitzeko kaxak etab. Kartoiak oraindik erabiltzen asko izan ditzake eta horregatik Limousin enpresako lankideak etengabe ari dira aplikazio berriak bilatzen.

Kartoi izurtua eratze prozesu guztiz ekologikoa da material birziklagarriak erabiltzen direlako. Modu honetan kontaminazioa izugarri gutxitzen da. Prozesu honetan erabiltzen % 95aren papera birziklatua da, kola artoz eginko almidoiarekin egina dago eta tinta pigmentu naturalaz osatuta dago. Azken produktua guztiz birziklagarria eta biodegradagarria da eta horregatik datorren urteetan plastikoa ordezkatu du denda eta merkatuetan.

Limousin gaur egun

Limousinek kartoi izurtuko 15 milioi metro koadro ekoizten ditu urtero eta horretarako 8.000 paper tona erabiltzen ditu. Nahiz eta produkzioa oso altua den lankide kopurua ez da altua (berrogei inguru) eta lehen aipatu bezala 80ko hamarkadako langile askok fabrikari jarraitzen dute lanean. Hala ere egoera zaila da eta beti borrokan egon behar da, kompetentzia oso gogorra baita. Enpresa guztiz saneatuta dago eta datorren urteetan inbertsio handiak eta garrantzitsuak egiteko gaitasuna du.

Etorkizunean enpresa handitza eta zabaltzaia izango da helburu nagusia, hori bai, material biodegradagarrien eta birziklagarrien aldeko apustua alde batera utzi gabe.



Urtero hamabost milioi metro karratu kartoi ekoizten dira. HARRIET BELLOSO



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Irura.** Nesken Pilota Eskiolari buruzko bilera egino dute, 19:00etan, Gaztelekuan.
- **Tolosa.** Arroilen jaitsiera antolatu du Oargi mendi elkaratek aste-buru honetarako Bielsan. Pinetako aterpetxean egingo da lo. Izen-ematea, 637 830380 telefono zenbakian.

Kultur Astea

- **Tolosa.** Extremadurako Kultur Astea La Jara elkartean: 18:00etan *Zer dakizu Extremaduraz?* lehiaketa, 19:30ean Extremadurako plater erregionalen lehiaketa (migas, patata tortilla, tomate zopa, calde-reta, pisto, gazpacho, tomate entsalada eta piper entsalada).

Zinema

- **Tolosa.** *La duquesa de Langeais* filma (JBA) emango dute Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

Erakusketak

- **Tolosa.** Rosa Maria Gullonen margoak ikusgai Lanbroa tabernan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Maria Mujika (Amezketeta). Abuztuaren 10ean 92 urte egin zituen. Jarraitu orain bezain guapa. Irene eta Ainhoaren partetik.


urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Atlantikoaren bestaldean



HABANA (KUBA) ● Xabier Iraeta Kuban izan da abuztuaren. Beste-ak beste, hiriburuan ere izan da egun batzuetan eta hau azaldu du: «Argazki hau Kuban harra-patu nuen. Azken egunetan Ike urakanaren ondorioz komunika-bideetan hainbeste azaldu den Habanako malekoi ezagunean aterata dago, irlaren ezaugarri diren 50. hamarkadako autoetako bat ageri da bertan, eta eguzkia jaisten ari da, arratsalde partean. Orduntxe hasten zen jendea bertaratzen, malekoian eseri eta egunear zehar egindako beroa uxatu nahian. Ikusgarria izan da bertakoen bizimodua ezagutzeari eta harrigarria makina horiek oraindik martxan ikustea! Paisaia guztien gainetik bertan ezagutu dugun jendearen oroitzapenarekin gertuko gara, du-darik gabe».



TAQUILE IRLA, TITIKAKA LAKUA (PERU) ● Ura Iturralde Peru izan da eta zabal azaldu ditu argazkiaren nondik norakoak. «Aurten abuztuaren Peru zeharkatu dugu bertako paisaia ezberdinak ezagutu ahal izan ditugu, basamortua, Andeak, Amazonia eta nola ez Titikaka lakua ere. Bertan irudi xeble asko baina honako hau batez ere harrigarria. Attonek josteko ohitura dute eta ondoren salgai jarri jertseak, txanoak, zapiak gauza gehiagoren artean. Polita iruditu zitzaidan irudia eta esan beharra daukat bertako jendeak zozagarri tratatu gintuela!».